# GETARIAKO GURASO ESKOLA

**Guraso Eskola**:
Jaio eta hasierako urteek garrantzia gero eta nabarmenagoa dute; izan ere, garai honetan norbanakoaren garapenak eta heldutasunak hainbat forma hartuko ditu ikasitakoaren arabera eta honetarako izandako prozesuaren arabera.
Ezinbestekoa da beraz, **prebentzio-lana**; honek hasierako urte hauetan garapen eta bizipen egokiak izaten lagunduko du, eta ondorioz pertsona horrek bizi-kalitate ona izango du etorkizunean.
Honek guztiak haurren garapenean zutarri diren bi erakunderekin lan egitea dakar: familia eta eskola. Horregatik, gurasoek eta irakasleek haurren hezkuntzari dagozkion hainbat kontzeptutan eta helburutan bat egitea komeni da.

**Nori zuzenduta**:
0tik 12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei

**Ikastaroaren metodologia**:
Guraso-eskolak dituen helburuak direla eta, metodologiak ezin du azalpen hutsa izan, ez eta pasiboa edo teorikoa ere, honela ezingo genituzke helburuak lortu. Aldaketak ez dira arrazoi bidez bakarrik egiten: horregatik metodologiak parte hartzailea behar du izan, irekia. Helburuak betetzeko lanean dihardugun guraso taldearen izaera kontuan hartu behar dugu; gutxieneko segida bat eman behar diogu prozesuari, talde lan dinamikoa izango da metodologiaren oinarria.

**Gaiak**:
Jorratu daitezkeen gaien zerrenda zabala da:

- Lotura afektiboak eta atxikimendua
- Agresibitatea
- Jolasaren garrantzia
- Nerabearen gizarteratzean taldeak duen garrantzia
- Zerotik hamabi urte bitarteko garapen psikosomatikoaren deskribapena
- Elikadura
- Emozioak eta lotura psikosomatikoa
- Komunikazioa familian
- Gurasoen heziketaren funtzioaren eta eskolaren arteko harremana
- Heriotzaren bizipena landu
- Sexualitatea ………………

**Ikastaroaren ezaugarriak**:
- Bi talde mugatuak: Seme-alaben adinaren arabera antolatuko dira bi taldeak (0tik 5era eta 6tik 12ra)

- 7 saio ordu eta erdikoak: Asteazkenetan izango dira eta egunak lehenengo saioan (urriak 3) finkatuko dira.

**Nork emanda**:
Harremanak elkartea: psikologia, psikoterapia eta sexologian adituak

**Lekua**:
Iturzaeta Herri Eskola



**IZENA EMATEKO ORRIA: Epea irailaren 26 arte**

**Seme-alaben adinarekin, ze saiotan izena ematen duzu?**
14:30 – 16:00 (0tik 5 urteetara) ☐

14:30 – 16:00 (6tik 12 urteetara, LH) ☐

**Parte hartzaileen izen-deiturak**:

______________________________

______________________________

**Helbidea:**

______________________________

**Telefono z°:**______________________________

**Seme-alaben adinak:** ______________________________

**NORA ERAMAN IZENA EMATEKO ORRIA:**
Eskolara edo Udaletxera

berdinbidean GIPUZKOA

Getariako Udala
Ayuntamiento de Getaria